

## **BALIO PROPOSAMENA**

Marketplace plataforma handi bat da, non marka, enpresa edo denda desberdinek beren produktuak edo zerbitzuak sal ditzaketen. Edo, bestela esanda, online merkataritza-gune moduko bat

Marketplaceko plataforma batean, denda desberdinek beren produktuak iragar ditzakete, bezeroari aukera ugari eskainiz. Gogoan dituzu hainbat saltzailearen produktuak biltzen dituzten Submarino eta Lojas Americanas webguneetako beirateak? Marketplace bat da.

Horrela, sare horren saltzaileek webgune berean egin ditzakete eskaintzak. Beste era batera esanda, online merkataritza zentro bat bezala da, non bisitariak hainbat denda sarbidea dute.

Eta ez, Marketplace eta ecommerce ez dira gauza bera. Marketplace-aren kasuan, X dendaren webgunean sar zaitezke eta dendak saltzen eta bidaltzen duen produktu bat aukera dezakezu. Marketplace-a dendentzako edo enpresentzako bitartekari bat da erosleentzat. Ecommerce baten kasuan, X denda baten webgunean sartzen zara eta dendak berak saldu eta bidaltzen duen produktu bat aukeratzen duzu.

“Astakos Transfers S.M ” aplikazioak enpresen arteko salerosketak eta trukeak bultzatzen ditu. Honen bidez, haien lehengaiak (saldu, hornitzaileak konpartitu), produktuak... trukatu ditzakete elkarlanean aritzeko, eta baita produktuak saltzeko ere. Market-place moduko bat eginez. Aplikazioak (ordenagailukoa edota mugikorrekoa izango litzateke, enpresa-mundua baita) enpresen arteko elkarlana eta ongizatea bultzatzen du, kompetentzia kostuak jaitsiz, eta honela enpresak haien artean lagunduz hazteko, baita tokiko ekonomia ere.

Ingurumenarekiko onura asko ekarriko ditu, esaterako, lehengaien fabrikazioaren murrizketan eragin egingo du, zikulazioan makina gutxiago beharko dira makina horiek beste enpresengandik alokatu ahal izango direlako.

Bi enpresen onurarako pentsatutako biterkari bat da. Enpresak haien artean zerbitzuen eta ondasunen trukea antolatzen du.

Honen bidez enpresak haien artean egindako elarkalanaren bidez ekonomikoki hazkundera edukiko lukete, tokiko ekonomia sustatuz. Gauza da, truke hauen kostua minimoa izango litzatekeela, eta honela, gauzak erraz trukatzeko ahalmena izango lukete, garraio zerbitzua Astakos Transfers-ek jarriz.

Hortaz, trukea egiterako orduan produktua edo lehengai utzi duen enpresak ez lituzte kezkarik izango, truke guztiak erregistratuak garatzen baititira, eta gainera, gure erantzukizuna gutzitzeko izango litzateke. Produktua itzultzeko orduan ere

gurea izango litzateke garraioa jartzeko ardura, eta noski, zerbait gertatuko balitz guk edukiko genuke erantzukizuna, lapurketarik edo nahita eragindako matxurarik gertatu ez badira, noski.

Gure enpresa Sozietate Mugatu bat izango litzateke, hauek ETE-en beharretara bikain egokitzen baitira. Hauek kapital eta bazkide gutxi izan ohi dute eta partaidetzen eskualdaketa mugatua izatean, hasierako bazkideek enpresaren kontrola izaten jarrai dezaten ahalbidetzen du. Bazkideen erantzukizuna, enpresaren zorren aurrean, mugatua da, gainera, S.M-ek banakako enpresaburuek baino aukera gehiago dituzte hazteko. Gure enpresak pertsonalitate juridikoa izango luke, eta bazkideen erantzukizuna egindako ekarpenera mugatuko litzateke. Nahiz eta izaera kapitalista izan, bazkidea nor denari garrantzia ematen zaio sozietate mugatuetan, partaidetzen eskualdatzea mugatzen baita. Sozietate Mugatua izango zenez, hasierako inbertsioa 3000 eurokoa izango litzateke, ordainketa bakar batean egina.